

Itsasargiak

Irati Majuelo

Egiteke dugunaren zirri-borroak dira testu literarioak», dio Sarrionandiak, *Airea ez da debalde* liburuan. Ez da berria iurritarrak berriazketari dion maitasuna; alabaina, idaztea berriaztea izateaz gain, liburu honek literatura hausnarketa, ilusio, oroitzapen eta ikaspenen topaleku ere badela erakusten digu, eta, azken finean, gure bizitzaren zirriborro dela. Hala aldarrikatzen du autoreak, behintzat, 2018ko azarotik 2019ko otsailera gauero idatzitako apuntean. Gaukari formatua arrotza gertatzen da zenbaitetan oraindik, bereziki saiakeraz ari garenean, ideien antolaketa jartzen diogun arretagatik edota egunero idaztea entrenamendu ariketatzat har daitekeelako. Baina ez al genuke jo behar gure pentsatzeko modutik hurbilen dagoen for-

matutzat? Sortze prozesua bera erakuts dezakeen idazketatzat? Eguneroko ideia-jasa atertu, eta hurreratzeko baliatzen du Sarrionandiak gaukaria, egia-susmoak dakartzaten izpiak loaren beltzetik salbatzeko.

Habanako ile-apaindegietatik Aralarreko mendialdera, Estatuaren Lurraldetik Amurrioko baserrira,



'Airea ez da debalde'

Idazlea: Joseba Sarrionandia.
Argitaletxea: Pamiela.

Brasilgo hondartza-puntatik Espainiako kartzeletara. Ibilbide luzeak eginarazten dizkigu Sarrionandiaren gogamenak, norabide bikoak ez ezik, gurutzaketa ugari-koak ere badiren hausnarketarako bideak. Gaueko bidaieetan, bidelagun ugari izaten ditu, ohiko duen moduan, eta han eta hemen deskubritutako idazleengan guztiontzat interesgarri bilakatzen dituen erreferentziak ekartzen dizkigu gaueko kandelapeko argitara. Behin eta berriz errepikatzen da, esaterako, Ricardo Rojas izena, idazle argentinarra, bere herrialdeko indigenen desagerpena parez pare ikusi eta idatzi zuena.

Kolonialismoak eta haren ondorioek zeharkatzen dute lau hilaletzeko gaualdia. Herriari eta herri zapalduetako buruzko gogoeak konstante bat izan dira Sarrionandiaren lanean, baina honako honetan arrazari eta generoari buruzko hausnarketek sostengatzen dituzte, idazlearen begirada kritikoa etengabeko eraberritzean dagoela ikusaraziz. Erbestea, kartzela eta literatura ditu mintzagai, ezinbestean. Baina baita zinema, adiskideak eta jolasa ere;

ezin liteke, bestela. Haur begiradarekin mintzo da batzuetan, alabaren inozentziatik bizitza deskubritzean. Besteen begietatik hitz egiten digu besteetan, inoren ahotan entzundako ipuin eta pasarteak gure egiteraino.

Liburua zabaltzean, gaueko idazketan izan beharrean ipuin kontaktan imajinatzen dut Joseba bere etxeko egongelan. Hitz egin baino, entzutea nahiago duen ipuin-kontalaria, eta, horregatik agian, haren hitzetan, egia borobilik agerian utzi nahi ez duena, baidak eta ipuinen bazterretan egiaz ezkututzen dakiten horietakoa. Liburu bat zabaltzea itsasoa dau den ontzietan itsasargi bat piztea bezala dela dio Sarrionandiak lehenengo gauean. Asmo onez pizten dira itsasargi batzuk, ontziak labarretan hondoratzea nahi duen bandidoek pizten dituzte besteak. Egia intermitenteak dakartza gaukari honek ozeanoaren bestalde. Ipuinak kontatzen entzun nahiko genuke, gure etxeko suntuoaren epelean, baina bizitzak beste bide bat zirriboratu artean, itsasargien mezuak deszifratzen jarraitu beharko dugu.



'Hona gu hemen'

Egilea: Oliver Jeffers.
Itzultzailea: Garazi Arrula Ruiz.
Argitaletxea: Txalaparta.

Oliver Jeffers (Belfast, 1977) ilustratzaile eta idazle entzutetsuak –berrogeitik gora hitz-kuntzatan irakur dakizkiok bere lanak– semea jaio berriean ekin zion lan honi. Munduaren nolokoa eta gorabeherak eta bizitza azaldu nahi zizkion, eta liburu hau da nahi horren emaitza.



'Mehatxua'

Egilea: Garbine Ubeda.
Argitaletxea: Elkar.

Garbine Ubeda idazleak bere nerabezaroan gertatutako hainbat kontu ditu idazgai Leku-koa bilduman, baina autobiografiara jo gabe. Ale honetan, amak Frantziara bidali du Larraitz protagonistak, uda pasatzera. Ihesbide moduan bizi du Larraitzek Nizako egonaldia, baina berehala konturatuko da ezingo duela.



'Egile Nafarren Euskal Literaturaren Antologia'

Koordinatzailea: Asier Barandiaran.
Argitaletxea: Nafarroako Gobernuua.

Asier Barandiaran Amerikak (Galdakao, Bizkaia, 1970) ari da gidatzen liburu sorta antologiakoa, lantaldean, eta sorta horretako hirugarrena da hau: 1975-2000ko epean argitaratu zuten hemeretzi egileren biografiak eta testu hautatuak bildu dituzte.

Katuen alde



Imanol Mercero


Aurreiritzi kontua da. Katuena, diot. Ikusten dut katu bat, eta berehala hasten naiz igarri nahian zer pentsatzen ari den, ezpada arriskua neurtzen, katuekin ezin baita sekula guztiz lasai ibili, hain dute-eta aldarre susmaezina.

Horregatik, katuak protagonista dituzten ipuinak tentuz irakurtzeko ohitura osasungarria hartu dut denborarekin.

Leoren istorioa harrigarriki era ezagunarekin hasten da –behialako Xola txakurtxoaren lehen abentura hura bezala, «Xolak badu lehoien berri»–, sabanako erregearen albistea Leo katuaren beldurrietara iristearrekin. Geroago gertatuko dena bada ez dut hemen azalduko. Katuekin gertatzen zaidan eran, albumaren irakurketak adi egotera behartu nauela esango dut, bisualki bezala, gi-

diolari dagokionez. Azken ezustearaino.

Saihetsezina ere aipatzea Judith Kerr idazle eta ilustratzailearen Mog katu, duela hain gutxi haren bi obra Koro Navarrok euskaratu ostean. Antzekotasuna baino gehiago ere ikusiko dituzue, baina, neure iritzia pertsonalean, haren antza izateak Leoren ipuina irakurtzeko beste arrazoi bat gehitzen du, hasteko eta behin.



'Leo sabanako errege'

Idazlea: Mikel Gurrutxaga.
Ilustratzailea: Maite Gurrutxaga.
Argitaletxea: Elkar.

Irri sinaptikoak



Imanol Mercero

Lehen inpresioa izan zen poema sorta luxurko honek (50+1 poema, atzeko tapakoarekin) azala arina duela, eta mamia trinkoa. Hurrengo saialdian barne-muini horiek arakutzen aritu naiz, plazer handiz aritu ere, ale bakoitzaren etiketatzen, eta euren artean multzoak egiten.

Ondorio nagusia da jolasa eta umorea eragiteko hiru balabiderek jarraitu dutela: txisteak, dedukzio ariketak eta paradoxak. Irakurlearen parte hartzea eskatzen duten poemak dira. Gehienak ez dira askatzen/amaitzen irakurleak soluzio bat ebartzeko, eta badaude erresoluzio zaileko poemak, edo zalantzakoa dutenak.

Grafia jolasak dira asko, esaterako, letra ezabatuen bidez egindako (oligrafoa, lainoa, tam ra me bre...), grafia erantsi/moldatuen

bidezkoak (eltxoak, txoriak txoriak, ardingarra...), eta kausa-efektuarekin jolastan da esanahiekin ere (tinta, orbela, itzal...).

Ezustekoaren eta irriaren artean: zonbiak, bidaia, tonto-tonto...

Poemek badute simetriarekin aritzeko joera bat, hoskidetasun eta erritmoari erantsitako konposizio gailen bat, eta hurrenkeran susmatzen da ibilbide baten proposamena.



'Joemak eta Polasak'

Idazlea: Inigo Astiz. **Ilustratzailea:** Maite Mutuberria. **Argitaletxea:** Elkar.